

OPOR GARAIKO BIZIPENEN KUTXA

4 eta 8 urte bitarteko haurrekin etxean jolasteko proposamenak

Zer aurkituko duzue? Etxean egongo garen opor garai honetan seme-alabekin euskaraz jolasteko eta euskarazko bizipenen kutxa egiteko proposamenak.

Egun bakoitzean jolas bat egingo dugu. Jolas horretan egindakoa edo beharrezko materiala kutxan sartuko dugu. Azken egunetan kutxan dauden jolasak errepikatzeko momentua izan daiteke.

Ekin jolasei!

1go EGUNA: Kutxa prestatu

Zer egingo dugu?

Etxean izan dezakegun materialarekin kutxa poli bat prestatu elkarrekin (seme-alaba eta gurasook).

Oporretako kutxa zertarako den azaltzeko une egokia izan daiteke

Kutxaren helburua euskararekin eta euskaraz jolasteko erabiliko dugula esateko momentua izan daiteke. Euskara asko ez dakiten gurasoek gainera seme-alabei laguntza eskatzeko baliatu dezakete momentua. Umeei irakastea asko gustatzen zaie eta ziur lagundu nahi digutela!

Nola jolasten da?

Linterna bat eskutan etxeko gela bat ilunpetan jarriko dugu.

Aldaera 1: Linterna eskutan hartuko du batek eta nahi duen objektua argiztatuko du:

- Zer da hori?
- Hori baloia da

Aldaera 2: Linterna eskutan hartuko du batek eta besteak honela galdetuko dio:

- Non dago leihoa?
- Leihoa hor dago (linternarekin argiztatuz)

JOLASTU ostean linterna kutxan sartu.

GOMENDIOA: Euskara asko ez dakiten gurasoek gelan aurkituko dituzten objektuak ikasi edo "txuletatxo" bat prestatzea komenigarria da.

Nola jolasten da?


Umea(k) eta heldua(k) parez pare jarriko dira.

Jolasa errazago ulertzeko nagusia hasiko da jolasten eta hau da esan behar duena:

“egin esaten dudana, ukitu: belauna!”

Parean dagoenak/daudenek belauna ukitu beharko du baina esaldia esan duenak gorputzeko beste edozein parte ukituko du. Hor dago zailtasuna eta dibertigarri egiteko gakoa.

Zenbait aldiz egingo du batek eta ondoren beste baten txanda izango da.



JOLASTU ostean gorputzeko atalak adierazteko iruditxo bat marraztu eta kutxan sartuko dugu.

GOMENDIOA: Euskara asko ez dakiten helduek gorputzeko atalak ikasi edo txuleta bat eskutan izatea egokia izan daiteke

Nola jolasten da?

Jolasaren helburua aginduak emanaz erronka lortzea izango da. Zein da erronka? Erronka begiak estalita eta bestearen laguntzaz ezkutatutako 5 objektu aurkitzea izango da.

Etxeko 5 objektu aukeratu eta batek objektuak etxetik zehar sakabanatuko ditu, ez dira ezkutatu behar, hartzeko moduko lekuetan ipini behar dira.

Ondoren objektuak ezkutatu ez dituztenek zapi batekin begiak estaliko dituzte eta ilaran jarriko dira. Objektuak ezkutatu dituenak aginduak emanaz objektuak hartzera eramango ditu besteak: aurrera, geldu, hiru pauso ezkerretara... Aginduak ematen dituenak ezin du inor ukitu.

Bi pertsona edo gehiagok jolastu dezakete. Bi baino gehiago badira aginduak batek emango ditu eta besteek begiak tapaturik trena eginez (bata bestearen atzean) mugituko dira.

JOLASTU ostean zapia sartuko dugu kutxan.

GOMENDIOA: Euskara asko ez dakiten helduek instrukzio batzuk ikastea komeni da: aurrera, atzera, eskumara, geldu...

Biren artean ere jolastu daiteke, batek ezkutatu eta besteak aginduak eman

5. eguna: IMINTZIOKA

Nola jolasten da?

Aurpegi keinuak egingo ditugu, aurpegiekin imintzioak egin eta sentimenduekin lotu behar dugu. Zer moduz zaude? Triste zaude? Pozik zaude? Haserre zaude? Nekatuta zaude? Guk jartzen dugun aurpegia asmatu behar du edo berak jarri eta guk asmatu.

JOLASTU ostean emotikono baten irudia margotu eta kutxan sartuko dugu

GOMENDIOA: Euskara asko ez dakiten helduek sentimendu batzuk nola esaten diren ikasi behar dituzte: triste, pozik, nekatuta...

6. eguna: NON EZKUTATU DUZU? Asmatu!

Nola jolasten da?

Etxeko gela batean objektu txiki bat ezkutatu du batek eta besteek aurkitu.

Objetuak ezkutatu dituenak pistak emango dizkio besteari.

- Non ezkutatu duzu?
- Asmatu!
- Ondo noa?
- Hotz, hotz...
- Hemendik ondo noa?

JOLASTU ostean ezkutatzeko erabili dugun objektuak sartuko dugu kutxan.

GOMENDIOA: euskara asko ez dakiten gurasoek hitz batzuk aurretik ikastea komeni da: hotz, bero, epel, erretzen....

Nola jolasten da?

Animalia desberdinen irudiak behar ditugu jolas honetarako. Margotu, beste jolas batetik hartu, ... poltsa txiki batean sartuko ditugu.

Poltsatik animalia baten irudia hartu eta kopetan ipiniko dugu zer den ikusi gabe. Galderak eginaz nor garen asmatzeko unea da.

TXIKITXOEKIN JOLASTEKO ALDAERA:

- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaaaai!
- Elefantea naiz?
- Ez, ez zara elefantea.
- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaaaai!
- Katua naiz?
- Bai!! Katua zara. Orain nire txanda.

NAGUSIEKIN JOLASTEKO ALDAERA:

- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaiiiii!
- Non bizi naiz?
- Basoan bizi zara.
- Ta zenbat hanka ditut
- Lau hanka dituzu...
- ...

JOLASTU ostean animalien irudiekin bete dugu poltsatxoa kutxan sartu.

GOMENDIOA: Euskara asko ez dakiten gurasoek erabiliko diren animalien izenak ikasi eta jolasteko elkarrizketa ikastea komeni da.

Nagusiekin jolasteko aldaeran momentu batzuetan euskaraz nola esaten den ez badakigu ez kezkatu. Esan gazteleraz baina haurrak euskaraz esan dezala, ez badiozu ulertzen lehenengo euskaraz esateko eta gero gazteleraz laguntzeko eskatu.

Gaur zein tokatuko zaigu?

Kutxatik begiak itxita zerbait
atera eta hori izango da
egunerako jolasa!

Jolas hauetaz gain, sarean hainbat aukera dituzue etxean euskarari lekua egiteko eta seme-alabekin batera disfrutatzeko. Baliatu itzazue! Hemen horietako batzuk:

Marrazki bizidunak	ETB3	Ziur badaudela gure seme-alaen gustuko marrazkiak
Marrazki bizidunak	www.euskal-encodings.com/marrazkiak	Hainbat pelikula eta marrazki bizidun. ETBn urteetan emandakoak. Aukera zabala duzue!
Entzuteko ipuinak	www.etxegiroan.eus	Entzuteko ipuinak. Entzun ditzagun seme-alabekin batera.
Entzuteko ipuinak	www.aittu.eus	Bideoipuinak, audioipuinak, mitologiaren txokoa... Merezi duen gunea.
Entzuteko ipuinak	Mobileko aplikazioa: Ipuintxo	Mugikorretik ipuinak entzuteko aukera.
Entzuteko ipuinak	www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak	Ipuin klasikoak marrazkien laguntzaz entzuteko ipuinak
Entzuteko ipuinak	www.solasegitekoipuinak.net	Ipuinak, denborapasak eta bestelakoak
Karaokea	www.txantxangorria.eus	Ikasi eta abestu euskarazko abestiak seme-alabekin batera
Euskarazko jolasak	www.urtxintxa.eus/etxean-egiteko-jolasak	Hainbat jolas eta proposamen etxean egiteko modukoak
Euskarazko jolasak	Mobileko aplikazioa: Jolastoki	Mugikorretik euskaraz jolasteko aukera.